

## **7.FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure enpresak diru sarrerak lortu ahal izateko, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi eta bezeroekiko harreman mantendu beharko du.

Funtsezko baliabideak kategorietan:

- Baliabide fisikoak
- Giza-baliabideak
- Finantza-baliabideak

Gure eredia:

### **Funtsezko baliabideak:**

Diru sarrerak lortu ahal izateko, balorezko proposamena garatuko dugu,. Bezeroengana iristen saiatuko gara eta bezeroekiko harreman mantentzen ahaleginduko gara gure webgunean hainbat proposamen eta balorazio jasotzeko aukera emanez eta noizbehinka hainbat inkesta pasatzen gure bezeroen artean.


Gure baliabideak lortu ahal izateko subentzio bat eskatuko dugu, gure produktua gaur egun, zoritxarrez, gizartean beharrezkoa bihurtu den zerbait delako, eta hau bultzatzeko, horretarako, gaiarekin zerikusia duen erakunde edo enpresa batekin kontaktuan jarriko gara eta parte hartzea proposatuko diegu mailegu baten bidez.



Gure produktuen erosketak ordainketak txartelaren bidez egingo dira. Eta belarritakoekin eta piercing-ekin arazoren bat izatekotan dirua bueltatzeko aukera emango dugu.



Proiektua gauzatu ahal izateko belarritako eta piercing-ak egiteko materialak eta chip-ak beharko ditugu. Gainera gure produktua jendeari promozionatzeko era egokia bilatu behar dugu eta horretarako haien beharrak eta nahiak aztertu beharko ditugu, kontuan hartuz gure bezeroak gehien bat nerabeak izango direla.



#### **Funtsezko baliabide fisikoak:**

- Web orriaren disenatzailea: Gure web orria era ulergarri eta txukun batean azaltzeko norbait kontratatuko dugu informazioa argi azaltzeko.
- Belarritako disenatzailea: Salduko ditugun belarritakoak kanpoko enpresa bati erosiko dizkiogu.
- CHIP saltzailea: Belarritakoen barruan doan chip-ak nonbaitetik erosteko beharra dugu, beraz, enpresa txikizkari batekin kontaktuan jarriko gara produktu horiek lortu ahal izateko
- Belarritakoa osatzen duten pertsonak: Pertsona espezializatuak izan behar dira, chip-a belarritakoaren barruan integratzeko era txukun eta apropos batean.

